

RUPER ORDORIKA

"Batzutan pentsatzen dut iraun dudala disko gutxi egiten ditudalako"

Ez dakit inor egongo den Euskal Herrian oñatiarra ezagutzen ez duenik. Ibilbide egonkorra, lasaia eta segurua garatu du Ordorikak, azken hogeitazko protagonista izan delarik. Aitzindarietako da, Elena Lopezek bere lehen lanarekin hasten du euskal musikaren historian barrena doan "Del txistu a la Telecaster"-en. 1981.ean "Hautsi da anphora" ikaragarria kaleratu zuenetik anitz izan dira kontzertuak eta estimatuak diskoak, denbora behar izan dutenak heltzeko, "Ni ez naiz Noruegako errege", "Bihotzerreak", "Ez da posible", "So'ik'so", "Dabilen harria" eta ia Bilbon grabatutako "Gaur" zuzeneko zoragarria. Mugalarien laguntza estimaezina izan du urteotan: musiko seguru eta distiratsuak, aldaketak aldaketa kalitatea eta estilo propioaren nortasun ikurrak mantendu dituztenak. Gainera, mila saltsatan sartuta egon da Ruper, Londreseko bizimoduak eta esperientzia anitzek aberastu baitute bere ibilbidea: Pott banda, musika tradizionalaren inguruko Hiru Trukuen proiektua (Joseba Tapia eta Bixente Martinezekin) edota Maurizia eta Leoni grabatutako diskoa, Arratiako trikitixari (alboka eta panteroa) buruzko dokumentu mirezgarria. Guzti hori musiko atzeritarrekin (Ben Monder eta konpainia) grabatutako diskoa aipatu barik. Bilbon jotzen zuela aprobetxatu genuen tarte bat lapurtu eta grabagailuaren aurrean esertzeko, Kafe Antzokiko kontzertuaren biharamunean.

"Hautsi da anphora" publikatu zenetik hainbat urte pasatu da, ia hogeitaz. Zer lortu duzu Euskal Herriko musikaren munduan, zein da orain arteko ibilbidearen balorazioa?

Ez dakit. Lortu dudana da irautea. Ez dut uste beste gauza berezirik lortu dudanik, kantuak egitea...

Baina azken batean horrenbeste denbora irautea pertsonalitate edo kutsu berezi batekin zaila izango da.

Bai. Ez dakit, batzutan pentsatzen dut iraun dudala disko gutxi egiten ditudalako. Uste dut behar dala sentitu hain zuzen ere behar hori, jarraitzeko eta gauzak sortzeko. Eta horretarako behar da tematia izan ere norbera, uste dut hor aritu naizela ni. Beti esaten dut, beharbada orain askoz zabalduagoa da nire izena, normala denez bestalde; baina nik uste hasieratik eduki dudala aurrean edo gertu beharrezko den entzule hori.

Gainera, azken urteetan entzulegoa berriztatuz joan da.

Bai, eta haunditzen ere bai. Baina beti eduki dut hor gertu, nahiz hasieran osos gutxi izan numerotan.

Askotan, sorkuntzarako, kanpoko iturrietara jo duzu, Ben Monder eta konpainiarekin grabatu zenuen "So'ik'so" esaterako. Beharrezkoa al da kanpora irtete hori?

Ez. Askotan egin ditut hainbat disko hemengo musikariarekin. Nik ikusten dut nire ibilbidea beti ikasbide bat bezala, maiz esaten dut hori eta ikasbide horren haritik edo norabide horretan, beti saiatzen naiz sakonera pitin bat neure gauzak, neure kantuentzako egoki dan eremu baten bila, lurralde bat; eta

orduan beti entzun izan dut kanpoko musika. Eta oso normala deritzot horri. Niretzako anormala litzateke bestea. Musika asko entzuten dut eta beti ere kanpoan bizi izandakoa naiz. Batera datozen gauzak dira, musikari asko ezagutu ditut hortik zehar eta

bat. Hori da nire inpresioa. Hor gero eta lasaia nabil. Beti ere burua pitin bat aurreraxegai edukitzen duzu, egiten duzuna baino piska bat haruntzago eta ikasbide horretan beti: nola egin hobetu zuzenean, nola...

Hobetuz joan, ez?

Hobetuz. Norberak behar du motibazio gisa ere bai. Baina oinarritzkoan beti esaten dudana moduan mantentzen dut kantuenan.

Askotan komentatu izan da Euskal Herrian egiten diren kantuek kanpoko erreferenteak dituztela, hau da, errazagoa dela Berlin aipatzea Donostia baino.

Ez dakit. Literaturan maiz gertatzen da hori gazteen testuetan baina horrek badu seguraski irakurketa kultural erraz bat. Behar dugu zabaldu eta behar dugu gaurkotu gure hizkuntza eta orduan, ez dakit, nire ustez tranpa horretan maiz erortzen da, ematen du horrelako tokiak aipatuz norberak isladatzen duela horrek sortzen dizun sententzia eta nik ez dakit hori norainokoa den. Baina uste dut ez dela Euskal Herrian bakarrik, orohar... Ameriketara Paris aipatzen duten bezala, "glamourra". Beti ere arazo hori sentitzen da. Euskaldun jendeak sentitzen du batzutan behar hori, apur bat gure eremu tikitik norabaitera joateko eta modernitatea batzuetan ere beharrezkoa da, horren harira irakurtzen ahal da hori.

Hiru Truku-ren berririk badaukazu?

Ez. Ointxe hasteko gara seguru asko datorren urtean berriz hemendik kanpo, lastimeka da ze badago holako eskakizun bat eta nik uste dut egingo dugula hemendik kanpo. Baina... mantendu behar dugu kanpoan.



Foto: Eduardo de Mujika

musikak hori du, hizkuntza gainditzen duela zentzu horretan. Gainera, azken urteetan banabil eremu zehatz batean, gero eta zehatzagoa dena, beharbada klasifikatzeko zailagoa dena eta nere ustez destilazio baten ondorioz lortzen dugulako poliki-poliki sonoridade

Euskal Herrian dena egin dugu gutxi gorabehera eta errepertorio berdina zen, gero hirurok norbere bidetik gauzak egiteko eta hori, baina oso ondo pasatu genuen bere sasoiari. Beharbada, egunen batean...

Berragertuko den zerbait izango da...

Bai.

Nola lortzen da Mugalarien egonkortasuna, hau da, hor izatea talde bat urte luzean zehar...

Bueno, asko aldatzen da, ez? Egia esanda mantzitzen da lan askori esker. Dena batzeko lan hori nekeza da, batzutan oso nekeza...

Zelangoa zen giroa Bilbon orain dela hogeitau urte? (Pott banda...)

Oso ezberdina. Baina nik uste dut guri eta gure munduari dagokigun partetik bazela ilusio handiko aldi bat eta sasoi hortan lortu zela nonbait euskararen inguruko mundua eta nolabaiteko abangoardia bat lotzea. Nik uste hori galdu egin dela, ilusio hori. Bakoitzak bere moduan irakurtzen du hori baino galdu dela lotura hori. Berriz ere, nik daukadan sentsazioa da kulturak maiuskulekin luzatzen duela euskal mundua "aldeano" mundu bat dela, berriz ere itzuli gara. Eta egunero hori hola ez dela demostratu beharrean gaude eta hori ere lotuko nuke aurretik aipatu dugun Berlingo kontu horrekin, zergatik horrenbeste aipamen kanpoko... Euskaldun jendeak asko nozitzen du hori, konturatzen da maiuskuladun kultura horrek, telebista eta irrati kateetako kultura horrek baztertu egin duela.

Eta gero beste gauza bitxi bat zen oraindik hasi gabe zeuden euskal emisorak eta orduan oso errez entzuten ahal zen euskal kantu bat edozein katetan besteekin batera. Orain hori oso gutxitan gertatzen da eta nik uste negatiboa dela hori. Hori da kanpotik, baina barrutik ere lan munduan erreproduzitzen dira gauza horiek, orain ikusten ditugu kanpainak euskal ez dakit zeren... eta horrela oso zaila da aurrera egitea, konplejo handiz eta... Hor dago "euskal musika", euskal musika genero bat balitz bezala.

Barkamena eskatuz ibili beharra.

Ez dakit, ez. Ez dago generorik, oso jende ezberdina gaude hemen zorionez, beste ezertan baino ezberdinago.

Gaur egungo mundu zoro honetan zelan prestatzen duzu zeure burua sorkuntzarako?

Oso desordenatua naiz ni, ez daukat metodorik. Ikusten ari naizena da gero eta gehiago oso zaila egiten zait kontziertoak egin eta gauzak aurreratzea. Kontziertoak...

aro hauek, esaterako, irailetik hona, eramaten dute atzetik lan handia. Lehen aipatzen genuena, koordinazioa, nola egin, ze guk oso modu artizanalean lan egiten dugu oraindik, eta halaxe izango da beti...

Nola interpreta dezakegu "Gaur" zuzeneko ateratzen den momentuan? Zerdia, orain arteko errepaso bat, gerora begira izango denaren aurrerapena?

Nire ustez egindako lanaren ondorioa da. Baita ere, talde bat, sonoridade baten zera. Nik uste dut sonoridade aldetik harreman handia daukala azken lanekin baino, uste dut



Foto: Eduardo de Mujika

gaurkotu beharra zegoela kantu batzuk. Pozik nago horrekin. Uste dut asmatu genuela egin genuen sasoiari.

Suposatzen dut grabaketan egondako giroak ere baldintzatuko zuela azken emaitza...

Bai, eta egin zuen bideratu ere bai, alde ekonomikotik eta alde guztietatik. Teknikoki ez dakit noraino baina izan zen aukera arriskutsu bat. Bestela, dena alde eduki genuen. Ez dakit, gauza horiek... nik halako batean garbi ikusi nuen. Egia esan behar badut, pentsatzen genuen Donostian egitea, kantaldi neutroago bat. Hemen jakin zutenean, nik banuen zalantzarik urte horretan, urtebete baino gutxiago aurretik hemen egon ginen, gero jaietan egon ginen Plaza Berrian eta pentsatzen nuen "Bilbon aspertuko dira gure gauzekin eta"; baina hauek esaten zuten behin eta berriro egin behar genuela. Bageneukan oso klaru bi egun behar genituela eta orduan hauei dena iruditzen zitzaien ondo, eta hiru ere egin genituen, bat goizean eta horrek gero asko erraztu zuen, bageneukan materiale ona, eta horregatik...

"Gaur" zuzeneko Esan Ozenkik argitaratu zuen, disketxe "gaztea", beste soinu batzuekin saiatzen dena. Publikoak gaztetu edo gazte jendearen arreata bizteko ahalegin moduan ulertu behar da hori?

Ez. Zuk uzten duzu jendeak erosten duela

zigiluagatik?

Ez, baina izenak beste era batera harremanatzean...

Nik uste dut hori dela nahiko ikuspegi... guk edukitzen duguna, ez jendeak. Ni konturatu nintzen lehenengo diskoa GASA-n egin nuenean, aldaketa handia zen, Madrilen... eta pentsatzen nuen jendeak... eta jendea ez da enteratzen, ez du begiratzen "Ez da posible" zeinek atera duen. Sekulan inork ez dit esan. Gure gauzak dira horiek, guk dauzkagun... Garbi neukana zen ez nuela gehiago egingo Madrilen, ez Madrilen ez egiteagatik, egin

ditut bost disko... baizik nire esperientziak erakutsi didalako alde batetik banekiena, hau da, nire esparru naturala hau dela, jendeak ulertzen duelako nere kantua, eta hemendik kanpoko merkatuak ez duela esistitzen, merkatu bezala, hau da, nik baditut zaletu batzuk idazten didatenak Caceresen, Plasencian, ba horiek lortzen dituzte nire diskoak internetez edo Madrilerara joaten dira FNAC-era edo Madrid Rock-era edo denda handi batera, ze

absurdoa da pentsatzea nahiz Madrilgo disketxe batean egon saltzaileak alboan eramango duenik Ruper Ordorikaren disko bat Caceresera. Ez dio pezetara bat emango. Nahiago du eramatea ehun Julio Iglesias, ehun... merkatu kontu bat da, hori edozeinek ulertzen du eta ez dagokio bakarrik euskaldunari, bistan denez, gauza bera gertatzen zaio inprobisazio pianista bati Calatayudekoa. Egiten duzun musika ez da erabat homologablea orduan ezin da sartu sare komertzialean. Eta estatu espainiarrean, eta beldur naiz Europa guztian ez dago oraindik zirkuito alternatibo sendo bat, Ameriketako dagoen bezala. Eta nire ustez hau dena dago momentu kritikoa batean, interneten salmentagatik eta abar. Orduan pentsatu dut absurdoa zela, normalagoa zela nik hemen, nire esparrua izanda, hemen saldu diskoak leku guztietan eta gero banatzaile arrunt bat kontaktatua daukan disketxe batekin. Hau esaten dut oso modu simplean baina ez da erraza izan, ze nik harreman pertsonal oso ona neukan Nuevos Medios-ekin, horko buruzagiekin batez ere, eta gauza horiek zailak dira. Eta gero, hemen ere, normala denez aukera batzuk bazeuden eta, ez dakit ba, hor ibili nintzen zalantza handitan. Baina ez nuen hori kontsideratu, nik gehiago kontsideratu nuen edo gehiago edo, hobeto esanda, erabat, euren interesa, oso (.../...)

(.../...) nabarmena izan zena, oso argia.

Nola antolatzen da zuzeneko baterako erreperitorioa? Zein puntura arte da malgua?

Aukera iturri asko dauzkate orain, ta kasuan kasukoak, ezin nezake esan... Esate baterako, orain egiten ari naizen horrek baloratzen du neurri batean diferentzia diskotik, hau da, diskoan sartu ez ziren kantu asko ematen ditugu, zaharrak eta berriak, nahiz jendeak ezagutu, sartu ez zirenak. Ba hemen nahiz grabatu ez nintzelako gustora gelditu, edo beste batzuk, beste arrazoi batzungen sartu ez zirenak. Orduan, horren barruan, taldearen karakteristikak ere oso kontutan hartzen ditut. Nik orain gehiago bilatzen dut taldeak eduki dezan balantzo handi bat, lehen zen talde sendoago bat sentidu batean.

Orain egiten dugu asko giroa zaindu eta orduan horren arabera pentsatzen dut ze kantu izan daitezkeen. Eta gero egiten dugu kasuan kasuko gauzak. Esate baterako atzo, "Berandu dabilta" ez dugu jo urtebetean eta banekien hemen ezinezkoa zela alde egiterik hori jo gabe. Esate baterako lehengoan Durangon jo nuen Sarriren kantu bat orain dela urte asko jotzen ez dudana, bere herria delako eta aspaldian ez nuen kantatu hor. Holaxe ibiltzen naiz, hartzen ditut aldaera batzuk, tokian tokiko... orain dela urte asko ez badut jo han batzutan egiten dut erreparatu handiago bat eta maiz joaten banaiz saiatzen naiz gauza berriak. Taldearen arabera egiten dut bizkar hezur bat.

**Normalean kantei egiten dizkiezun sar-
rera edo aurkezpenak publikoarekin
konektazeko saiakerak dira?**

Bai, bueno...

**Askotan aldaki desberdinak erabiltzen
dituzulako...**

Ez dakit ba, nola... Ni oso berandu kontu-
ratu naiz. Ni urtetan ezagutzen nauenak bada-
ki orain dela bost bat urte, esatearren, ez nuela
hitzik esaten batzutan kontzertu osoan. Egia
esan behar badut, eta esaten dut hau erenegun
aritu ginen gai honetaz Iruñan, hango anto-
latzaile batek gogoratzen zidalako nola ez
nuen hitzik esaten... Nik uste hau dena hasi
zen gehiago Hiru Trukurekin. Zaletasun han-
dia daukat kantu zaharrekin, orduan, hasten
nintzen esplikatzeko eta batzutan moztu egiten
nuen ustez eta luzeegi ari nintzen eta batez ere
Tapiak esaten zidan beti: "ez, ez, ez, hik esan,
ze hori benetan jendeari gustatu egiten
zaio...". Eta halako batez nik konprenitu dut
nire kantuek asko eskertzen dutela zubi hori,
eta uste dut jendeak ere bai, asko eskertzen
dute zubi bat, noski, beste konexio bat kantu-
arekin. Horrexegatik egiten dut eta uste oso
ondo dihoakidala. Orduan normala denez,
beti saiatzen naiz baita ere batzutan baloia
lurrera jeisten, ez gauza erabat abstraktoak
egin. Beharbada herri bakoitzeko gauza bat
ateratzen bazait, zure bailarako Mauriziak
egiten zuen bezala.. Nik uste kantari guztiek
egin izan dutela hori. Hau askotan kontatzen
dut ze Maurizia eroan genuenean Lasartera



Foto: Eduardo de Mujika

**RUPER ORDORIKA ETA MUGALARIS. Kafe Antzokia. Bilbo.
Abenduak 1.**

Hilabete berean hirugarrenez ikusten genuen oñatiarra, jo ta su txoko ezberdinetan kontzertuak eskeiniz dabilena (Madril eta Katalunia barne). Gernika eta Durangoko ziten ondoren barkaezina izango zen Kafe Antzokira ez gerturatzea. Izan ere, leku erreferentziala iruditzen zaigu guri Ruperren zuzenekoetan, oraindik ahazteke baititugu "Gaur" iazko diskoaren grabazioan sentitutako une etengabeak. Buenos Airesgo kitarrista "berriak", Iñigo Golderazzenak (baxua) eta Nando de la Casak (bateria eta teklatuak) ederki bete zuten euren lana, kolaborazio estelarrak ahaztu barik, Josu Zaballarena, hain zuzen ere, Ordorikaren aurreneko "Hautsi da anphora" hartan ere jo zuena.

Erreperitorioari dagokionez, ez zen sorpresarako tarte gehiegirik izan, "Erruduna", "Egin kontu"-ren argitasuna, "Ene begien" inspirazioa, "Zaldi eroak", "Martin Larralde"-ren zorabioa edota "Crack"-en distira gozatu genituen. Ruperrek oinarri trinkoa osatu du normalean jotzen dituen kantekin eta aldaketa txikiak sartzen ditu eguna, lekua edo entzulegoaren arabera. Apustu segurua da beraz, serioa, zintzoa, biluza eta gogorra, sentsibilitatea eta bihotza urratzen diguten ahapaldiz osatua. "Berandu gabiltza"-rena gehiegi izan zelakoan gaude. Berak aitortzen zigun moduan, ezinezko izango litzateke hori jo barik alde egitea. Guk, eskertu egin genuen. Hala ere, Bilbon ez gintuen Alberto Cairak bisitatu, aste-bete lehenago Durangon egin zuen bezala eta ezin izan genuen Jon Troilope labandariara lagundu... Baina aukeraketa guztiek dituzte alde eta kontrako gauzak. Gehiagoko barik, disko berri baten esperoan gelditzen gara.

ARITZ ZUBIATE

diska grabatzera, bukatu zen kantua eta esan zuen "Non gauz?", "Lasarten", eta esan zuen "Aupa Lasarte!", baina diskoan bertan. Ohitura, eraman zaituen herriari eskerrak ematearena.

**Durango Azoka... Zein puntura arte da
militantzia, zein puntura arte euskal kul-
turaren produkzioaren ispilu fidagarria?**

Nik uste ukaezina dela Durangoko Azokaren oihartzuna, ez dakit nola aztertu litekeen hori. Ez nuke gorago eroango; baina uste dut laguntza handia dela disketeentzako, baita liburu- etxe guztientzako. Euskal kulturaren ispilua? Nik uste dut halako ekintza... "glamour" gutxikoa eta oso primiti-
boa topatu duela erantzun bat eta horrek erakusten du badagoela egarri bat. Beste asko balira holakoak, hobeto. Pasatzen dena da, gero halako suertez, ze hori ez zen hola hasi, lotzen da gabonekin, eta nik uste hor bada-

goela fenomeno bat. Nik ikusten dut arazo gehiago gaur eskaeran eskeintzan baino. Musika asko egiten da Euskal Herrian, era askotakoa eta gauza duinen bat pasatzen da inor konturatu gabe. Arrazoi asko daude baina bata da euskaldun jendeak ez duela bere burua behartuta ikusten euskal gauzak erostera, erosten du gustatzen zaion musika. Eta azken finean zure kompetentzia da erosleak poltsikoan dauzkan 2500 pezetan aurrean, orduan ikusten ditu hamar disko berri eta esaten du "eroango nuke hau, baino ezin ditut denak eroan, eroan behar dut bat".

**Gainera, produktu konkretu batzuk dira
promozionatzen direnak.**

Bistan denez. Eta oso musika ona egiten da munduan. Hori da, horregatik esaten dut, gehienbat hortik ikusten dut. Hor Durangok badauka eragin bat, nahi eta nahiez.

ARITZ ZUBIATE